

BASERRIA

IZKUNTZAREN ABIA

Emen, jogok, benetan, gure izkuntzaren abia. Jakituria, maitasuna ta bizia.

Ardien bizitza galdu barik, argibide barriak sortu zientuen gure arbasoen barruetan.

Beti, oldotzen, beti, asmetan ta aurrerapideak sortzen. Euskaldunaren lei au berezkoa izan dot giza aro guztietan gaur artean.

Emen, zabaldu bear joan gure berbeta mamintsuak. Aldi onetan, geroago ta lan geiago artzen jok bere gain euskaldunak.

LURRA LANTZEN

Lurraren sasiak argituz, adimena argitzen joiak; lurrari ale gorriak emonerazoz, adimenari arnari oparoak sortu eragiten jeutsezak. Gizona asi zuan lurra landuten Bibliaren esanera.

Abere barriak ta euren bizitza ez zuan edozelakoa.

Len, mendietan ebiltzenak, orain, aro barrian, lurrak lantzen lugiñen aginduz.

Emen, mundu barri bat askoz zabal ta jakintsuagoa agertzen dok.

Lurrak eta abereak, danak, gizonaren esana egingo juek bizitz zabalagoaren sorrera ta eginbidean.

LAN GATXA

Baserrilana artzaigoa baiño askoz korapillotsuagoa agertzen dok. Lurraren almenak, giroa, indarrak ez dituk bertanberakoak; egiz, kontuan artzekoak baiño.

Lugiña, arduratsu, ibili zuan basetxe, sendi ta lagunarte txikiagoko bizitza orren sorkeran.

Millaak eta millaak urteetan iraungo eban bizitza sortzea zuan. Gaur be, gure biziaren oiñarri dok, aldi aretan asmau eben etxe ta sendi bizitza.

SENDI-GIROA

Etxeko bizitza gozo ta alkar laguntzailleak arazo barriak, ugari, ekarri jitian gizartera.

Aurrerapidea ezin esan alakoa. Buruko min sendoak sendi batzarrera ta lagun artera ekarri zituenak..

Lagunak be, itzez, berbaz erantzun bear jeutsen lan-gorabera ta ainbesteko bizitz giroari.

Guztiori jakituri geiago eskatzen jauan. Berba barriak, esakerak, agertzeko moduak...

ESAEREA EDERTZEN

Euskera edertzen, liraintzen ta mardultzen joian Euzkadi osoan; ta era berean, Bizkaiko izkuntza jaiio, azi, ta mamintzen zuan Bizkaitar semien irudimen ta argi zabalak agintzen eutsen eran.

Bizkai-lur onen semeak, beti, ikusi jituat, apal, berbeta on, jakintsu ta aberatsa sortzean ta bitxirik ederrena sortu ondoren.

Ori-gaitik, bear ba da, erriak, geien, darabilen izkuntza Bizkaiera dok.

AUNDIKERIA

Beste alde batetik ostera, gizon apala baztertua ta zapaldua dala, ez al dok ikusten gizartean...

Gizadia, beti, izan dok aundikeri zaletasuna... naita otska, zarataka ta arrantzaz ibili, goratu egin nai dala esaten, gero, ondoren, zoritxarrez, zapaldu egiten dan bizitza apala ta egi-zaletasunezkoa. Nire sorleak eta jagoleak euzko basetxeak izan dituz millak urteetan, ta aurrerantzean be, eurak izango dituk.

BIZKAIERAZ

Bizkai izkuntz, nire izatearen jeiñua, mendi, zelai, ibar, arru, arizti ta arkaitzetakoa dok. Bizkaiak edergallu onek bere altzoan jaukezak. Ta onek gaiñera, edertasun guzti ori artu, mamurtu ta euzko gizadiari pentsabide ta maitasunak, erarik onenean, agertzeko duin izan diran, ta gaur, diran idazlari, bertsolari ta olerkariak bere-bereak jituak.

EUSKEREA ERREGIÑA

Norbere bizia iñor-gaitik emoten daunak, dana emoten jok. Ni, eskoletako pentsabideakaz ta aundikeriekaz il nai ba-nozue, ama, etsi ezinik, negarrez, ikusiko nozue, ta jaiio nintzan Bizkaiko lurrean, baserritarreen buru, biotz, agoetan ta eleizako aldaretan, ezeren lotsa barik, erregiña izango nok.

PAULIN